

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Begoña Agote Martiarena

*Donostia,
Gipuzkoa
(1923-2012)*

Aurkibidea



Biografia



Gurasoak donostiarrak zituen; ama Anoeta baserrikoa eta aita Parte Zaharrekoa. Hantxe jaio zen, baina oso umetan Pasai San Pedrora joan ziren bizitzera aldi baterako, aita hango bapore enpresa batera joan zelako lanera. Hiru senide ziren. Hasieran Pasaian joan zen eskolara eta Donostian gero, mojekin betiere. Hamaika urte zituenean bueltatu ziren Donostiara, eta Parte Zaharrean bizi izan ziren, Portu kalean. Agote taberna-jatetxe-pentsioa zuten. Gerra hasi zenean Getariara joan ziren ihesi; astebete egin zuten han. Aita Eusko Etxearen sortzaileetako bat zen. Bilbotar batekin ezkondu zen, eta sei seme-alaba izan zituzten. [Miren](#) ahizparekin egin genion elkarrizketa Begoñari (eskuinekoa).

Zintak

DON-070

- **Proiektua:** Donostiako ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2010-02-04
- **Iraupena:** 106 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea

Pasarteak

1. Euskaraz bataiatzeko istiluak

- **Erref:** DON-070/002
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:00:08. **Bukatu:** 00:01:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

<p>Euskarazko izenak jartzeko istiluak izan zituzten bataiatzerakoan. Miren Arantzazuren bataio egunean, apaizak jarritako traben ondorioz, beraien aitak etxera itzultzea erabaki zuen eta beste apaiz batekin bataiatu zen geroago.

Pasai San Pedron jaio zen Miren Arantzazu, bere neba-arrebak, aldiz, Donostian.</p>

Transkripzioa

- Miren: Ni naiz Miren Aranzazu Agote Martiarena.
- Begoña: Begoña. Begoña. Bueno, bigarrena ez det behin´e erabiltzen, baiño... Ezin zan jarri euskerazko izenik, eta Begoña nola zan... Oseake, Agote Martiarena.
- M: Nere denboran, bai, nahiko istilluakin ni... neri bataiatu nindutenean. Apaiza batek ez zun nahi euskeraz esan bataioa. Eta, ordun, gure aita badakizu zer in zun? Danak etxera bueltatu. Ta ez genun egin bataioa. Ta gero...
- B: Barkatu, esan egin behar da: tarta ta guzti...
- M: A! Bueno, hori...
- B: Eske da “una anécdota”, aizu.
- M: Anekdotata da dana.
- B: Eske oain ez gea jutun tartakin eta. Baina ordun jutun zan bat, zea, kandelakin mutil bat eta neskak tarta bat ematen zun. Eta tarta eta guzti etxea. Eske da... inportantea da.
- M: Bueno, eske “aparte de la tarta” jende dana joatea, nahikoa da!
- B: Baita´re. Baita´re.
- Oseake, tartakin elizara?
- M: Elizara Joan zan famili dana eta nola ez zun nahi euskeraz jarri, pues, esan zun nere aita: “Bueno, guazen etxera”. Eta etxera bueltatu giñan. Eta gero beste apaiz bat, pues, euskalduna...
- B: Oiartzuarra zan apaiza.
- M: Euskalduna zan, e!
- B: Oiartzuarra.
- M: Baiño karlista. Eta, ordun, euskeraren kontrakoa. Karlista gehienak kontrarioak izan dia euskerana.
- Eta hori nun gertatu zan?
- M: Ni jaio nitzan Pasai San Pedron.
- Pasai San Pedron jaio ziñan?
- M: Bai. Nere ahizpa erta nere anaia hemen, donostiarrak, baiño ni pasaitarra naiz.
- Eta noiz jaio ziñan zu?
- M: Hogeita zazpian.

2. Abertzaleen bilgune zen euren etxea

- **Erref:** DON-070/005
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:05:08. **Bukatu:** 00:08:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak

Laburpena:

<p>Donostiako Portu kalean bizi izan ziren. Euren etxe azpian jatetxea eta taberna zituzten. Abertzale askoren bilgunea izan zen gerra denboran zein gerraostean, eta itxi ere egin zieten inoiz. Parisen zeuden Eusko Jaurlaritzako kideak bertan batzen ziren isilean. Oso ezaguna zen euren etxea. Agote jatetxe-tabernak langile asko zituen.</p>

Transkripzioa

- Eta, han, Parte Zaharrean, nun bizi ziñeten?
- Miren: Puerto kalean.
- Puerto kalean?
- M: Bai, kale Puerto, 3. San Jeronimo eta Kale Nagusien erdian.
- Begoña: Plazatik hartuta berehala.
- M: Konstituzio plaza. Zuk ondo ezagutzen dezu Donostia?
- Bai, hori... Parte Zaharra bai.
- M: Pues han. Puerto , 3.
- Eta hor ez zegen zuen taberna-jatetxe hori?
- M: Jatetxea, bai.
- Etxebizitzan azpiyan?
- M: Bi etxe goien, bi etxebizitza.
- Bi etxebizitza eta azpiyan taberna.
- M: Taberna.
- Eta jatetxea.
- M: Bueno, bai, klaro. Oso haundiya zan.
- B: Bi jangelak genitun. Oso haundiya zan.
- M: Oso haundia.
- B: Pelotari asko gelditzen zan han, toreruak ere bai...
- M: Bueno, danetik. Eta abertzale jende asko ere bai. Abertzale danak Bizkaitik eta Naparrotik gure etxera etortzen zian elkartzera beste batzukin. Gure etxera.
- B: Itxita ´re eukitu genun.
- M: Poliziak gure etxea itxi zun.
- B: Ezin jan, ez genun jateko tokirik. Osea, bueno, esan nahi det, hori, itxita dana. Ezin genun ezta lo ere egin. Bueno, lo bai, lo bai.
- M: Oseake, etortzen zan Euskal Herriko abertzale danak gure etxean elkartzen ziran.
- Hori gerra aurretik?
- B: Gerra denboran.
- M: Ez, gerra denboran ta gero ´re.
- Gero ere bai?
- B: Bai.
- Baiña gero ixilpean, ez?
- M: A, bai. Etortzen zian, gure etxean elkartzen ziran Parisen zeon Gobierno euskaldun Gobierno baskokoak, Ajuriagerra ta hoiek? Hori gure etxean ezagutu genuen. Gure etxera etortzen zian eta iten zuten ixilka, e, bazkariak. Ta, bueno, politika aldeti asko bizitu degu guk, gauza asko.
- B: Eta hori agerian jartzia komeniko da?
- M: Baiño jesuuuss! Zer? Zer da ba hoi? Ezin degu esan? Hori, aber... Euskal Herriko abertzale danak gure etxera etortzen zian. Bilboko pilla bat. Naparrotik eta...
- B: Eta dantzariyak ze esanik ez.
- Orduan pilotariak, dantzariak, toreruak, abertzaliak... oseake, danetik.
- M: Bai, oso ezaguna zan ordun gure etxea.
- Eta esan dezu bi jangela zitula. Hor lanian jende dexente ibiliko zan, ez?
- M: Onbre! Kozinera ta... Kozinera bi sukaldean ta tabernan, pues, kamarera zenbat izaten zian? Bost o sei.
- B: Segun...
- M: Udaran gehiao; neguan... baiño bost o sei urte guztian.
- B: Genun anai bat jatorra!
- M: Bai, zintzoa. Berezia izan zan.
- B: Eta harek iten zun tabernan. Harek ematen zun taberna. Eta zan,

ba, hori, ez dao ondo esanda baiño zan markatik fuerakua. Hola esaten zan lehen e? Markatik fuera. Bai, bai.

3. Gurasoak herriarekiko konprometituak

- **Erref:** DON-070/007
- **Iraupena:** 0:01:57. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:10:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Hiru senide ziren. Aita abertzale porrokatua zen, Donostiako Euzko Etxeako sortzaileetako bat. Ama ere abertzalea zen, baina orduan emakumezkoak bigarren maila batean egoten ziren. Batzokiko dantza-taldean ere aritzen ziren. Mirenek badu argazki bat Pospolin jantzita, lau bat urte zituen eta Atotxan ageri da. Pasaian bizi zirela, bere ama Kursaalera etortzen zen dantzak ikastera gero beraiei irakasteko. Ama Anoetako baserriko alaba zen.

4. Hamar urterekin euskarazko dotrina irakasten

- **Erref:** DON-070/010
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Dotrina ere erdaraz ikasi zuten. Begoñak hamar bat urte zituela, Pasai San Pedron dotrina euskaraz irakasten aritzen zen gainerako umeei maistrari lagunduz. Angeles Inda zen maistra. Euskaraz egitea galarazita zegoen, baina astean behin-edo elizara joaten ziren euskarazko dotrinara.

5. Pasaiaiko portuan joan-etorri asko

- **Erref:** DON-070/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:15:31. **Bukatu:** 00:16:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Pasaiaiko portuan arrantzaleen joan-etorriak ugariak ziren. Pasaian hamar bat armagin zeuden. Ontzien tutua entzunda, bazekiten zein zein portura zetorrena zein zen.

6. Mendira eta itsasoko bainuak

- **Erref:** DON-070/014
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:18:45. **Bukatu:** 00:21:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendira eta hondartza

Laburpena:

Astero, ostegun arratsaldean eskolarik ez zutenean, mendi buelta bat ematera joaten ziren. Txiki-txikitatik bainatu izan dira itsasoan. Bainujantziak izan dituzte betidanik. Pasaian etxe ondoan zuten bainatzeko tokia. Donostiara bueltatu zirenean, hondartzara joaten ziren; kaira mutilak joaten ziren batez ere. Kaian bizi ziren emakumezkoek bata janzen zuten, ez bainujantzia. Amak tabernan egon behar izaten zuenez, izeba batekin joaten ziren hondartzara.

7. Jolasak eta gaztelura egunpasak

- **Erref:** DON-070/017
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:24:05. **Bukatu:** 00:25:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Miren Arantzazu Konstituzio plazan aritzen zen jolasten: sokarekin, diabloarekin, "a chingos"... Gaztelura asko joaten ziren egunpasa.

8. Kalbarioetako Via Crucisa

- **Erref:** DON-070/018
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:25:39. **Bukatu:** 00:27:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlujioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua

Laburpena:

Pasai San Pedron bizi zirela, beraien aita goizeko zazpietarako gaztelura igotzen zen Kalbarioetako Via Crucisera; Ostiral Santu egunean ospatzen zen.

9. Alde Zaharreko giroa eta Portu kalea

- **Erref:** DON-070/019
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:27:15. **Bukatu:** 00:28:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

Laburpena:

Alde Zaharreko giroa oso ona zen. Arrain-saltzaileak kalean saltzen zuten eta kalerik kale oihuka ibiltzen ziren. Portu kalean taberna asko eta sagardotegia zeuden.

10. Baserritarrak Konstituzio plazan

- **Erref:** DON-070/021
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:31:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Konstituzio plazan baserritarrak egoten ziren beraien produktuak saltzen. Esnezaleak etxez etxe joaten ziren astoak Aldamar kalean eta San Lorentzo kalean utziz lotuta. Ondorioz, San Lorentzo kaleari "Astokale" ere deitu izan zaio.

11. Anoeta ingurua nolakoa zen

- **Erref:** DON-070/024
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 00:32:32. **Bukatu:** 00:36:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Anoeta ingurua nolakoa zen azaltzen dute. Beraien ama Anoeta baserrikoa zen eta sarri joaten ziren bertara aitona bisitatzera, baina oso zaharra zen eta bota egin zuten. Donostia "La casa del Aguila"n bukatzen zen. Loiolako tranbia bertatik pasatzen zen eta Donostia guztia zeharkatzen zuen. Peñafloida kalean hartzen zuten Hernaniko tranbia aitona bisitatzeko. Erribera aldean baratzeak zeuden. Anoeta aldean angulak harrapatzen zituen jendeak. Anoetan zeuden beste baserri batzuk aipatzen dituzte; gaur egun ez dago horrelakorik, zeharo aldatu da. Ez zegoen bertako elizarik, Miserikordiara (Torreaga) joaten ziren, baita Loiolara ere.

12. Gerra garaian Alde Zaharra hustu egin zen

- **Erref:** DON-070/027
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:38:53. **Bukatu:** 00:40:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

Laburpena:

<p>Gerra garaian Alde Zaharra hustu egin zen, beraiek Getariara joan ziren. Donostiatik bapore asko umez beteta eraman zituzten. Beraiek Frantziara joatekoak izan ziren, baina Almirante Cervera ontzia zelatan zebilen.</p>

13. Gerran ezin itsasoratu eta Getariara autoz

- **Erref:** DON-070/029
- **Iraupena:** 0:03:09. **Hasi:** 00:40:51. **Bukatu:** 00:44:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra

Laburpena:

Gerrak oso gutxi iraun zuen Donostian. Almirante Cervera ontzia itsasoan guardia egiten ibiltzen zen eta beraiek Frantziara joatekoak ziren. Goizeko lauretan jaiki ziren itsasontzia hartzeko, baina ezin izan ziren itsasora atera eta etxera bueltatu ziren. Azkenean, tropak sartu ziren egun berean hiru familietako haurrak Getariara joan ziren autoz. Astebetez egon ziren bertan. Han, helduek paparrean Espainiako bandera eraman behar zuten kalera irteterakoan.

14. Gerraosteko giro tristea

- **Erref:** DON-070/033
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:46:12. **Bukatu:** 00:47:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra Zibilean Donostia hartu eta gero bertako bizimodua guztiz aldatu zen. Etxe asko hutsik zeuden eta katu asko ikusten ziren kalean. Kaia hutsa geratu zen, itsasontziek alde egin zuten-eta. Beraiek ez zuten goserik pasa jatetxea zutelako, baina errazionamendua tarteko askok gaizki pasatu zuten.

15. Alde Zaharretik Anoetara gobara egitera

- **Erref:** DON-070/035
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:48:42. **Bukatu:** 00:52:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea

Laburpena:

Beraiek bi etxebizitza zituzten eta zerbitzariak bertan bizi ziren. Maindireak eta garbitu beharrekoak Anoetako baserrira eramaten zituzten gobara egiteko. Ibaian egiten zituzten garbiketak. Kaian bazegoen garbitoki bat, baina bertakoak baino ez ziren joaten bertara. Emakume batzuk besteen arropak garbitzeaz arduratzen ziren.

16. Gasa etxeetan

- **Erref:** DON-070/036
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:52:21. **Bukatu:** 00:53:42

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Etxea noizean behin fregatu eta argizaria ematen zuten. Lisaburdinak su gainean berotzekoak ziren. Sua ikatzarekin egiten zuten. Etxe batzuetan gasa ere bazegoen, gas-lantegia baitzegoen bertan. Beraien tabernako kafeterak ere gasarekin funtzionatzen zuen.

17. Euskara eskolak emateko titulua

- **Erref:** DON-070/037
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:53:42. **Bukatu:** 00:56:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Euskara eta politika

Laburpena:

Jantzigintza ikastera joaten ziren etxe batera, baina gero ez zuten horretan jardun. Gero euskara irakasteko prestatu ziren eta horretan jardun zuten. Miren Arantzazuk Bilboko Deustuko hizkuntza eskola ofizialean atera zuen titulua eta Begoñak Donostian bertan. Mirenek Opuseko idazkaritza-ikasketxean eman zituen eskolak. Batzokian ere talde asko izan zituzten. Ezkondu aurretik hasi ziren lan horietan.

18. Umetatik hondartzara

- **Erref:** DON-070/045
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:09:10. **Bukatu:** 01:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza

Laburpena:

<p>Umetatik joan izan dira hondartzara, baina Alde Zaharreko askok ez zuten horretarako betarik. Etxekoandreek etxeko lanak egin behar izaten zituzten eta neskamea izan ezean ezin izaten ziren joan. Eurak izebarekin edo amarekin joaten ziren. Begoñak gogoan du beraien nebak balandro bat zuela bertan jostatzeko, urtean jolasteko jostailuzko belaontzia. Beraiek ez dute ezagutu hondartzako txabolarik.</p>

19. Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen

- **Erref:** DON-070/048
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 01:13:53. **Bukatu:** 01:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Inguruko lehen kafetegia "California" izan zen, ordura arte denak tabernak ziren. Emakumeak ez ziren tabernetara sartzen, kafetegietara bai.

20. Donostiako zinema-aretoak

- **Erref:** DON-070/050
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:16:21. **Bukatu:** 01:17:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema

Laburpena:

Garibai kalean 'Novedades' zinema-aretoa zegoen, jesuitena omen zen. 'Petit Casino', 'Principal', 'Bellas Artes', 'Trueba' eta 'Kursaal' zinema-aretoak dauzkate gogoan; elkarrizketa garaian, lehenago aipatutakoetatik 'Trueba'k baino ez zuen jarraitzen.

21. Donostiako kaskarinak eta Joxemaritarrak

- **Erref:** DON-070/056
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 01:25:22. **Bukatu:** 01:27:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Donostiarrek kaskarin fama zutela dio Begoñak. Miren Arantzazuk dio zonaldearen arabera zela, auzotarren arteko kontuak zirela. Konstituzio plazatik kai aldera artekoak, Andra Mariakoak, 'Joxemaritarrak' omen ziren. Konstituzio plazatik Aldamar kalera arteko San Bizentetarrak ziren.

22. Inguruko auzoen artean desberdintasunak

- **Erref:** DON-070/057
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 01:27:03. **Bukatu:** 01:28:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Kai aldean eta Alde Zaharrean bizi zen jendearengandik desberdinak ziren Bulebarretik haratago bizi zirenak, eta zer esanik ez Grosekoak, dotoreagoak ziren eta baita erdaldunagoak ere. Kaiko emakumeak, arrantzaleen emazteak, erdaraz aritzen ziren.

23. Kaiko emakumeak kartetan

- **Erref:** DON-070/058
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:28:11. **Bukatu:** 01:29:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Kaiko emakumeak beltzez jantzita arkupeetako tiña gainetan kartetan aritzen ziren, ez zen gizonik ikusten. Arrantzaleek tiñak arraina kontserbatzeko erabiltzeko zuten.

24. Aitarekin arrantzan

- **Erref:** DON-070/062
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:32:00. **Bukatu:** 01:34:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

San Pedron bizi zirela beraien batelak 'Liraina' zuen izena eta txuri-urdina zen. Aitak denbora zuenean, arrantzan ateratzen ziren. Bakoitzak beraien aparailua zuen amuan zizareak sartuz arrainak arrantzatzeko. Nahi beste arrain jaten zuten.

25. San Pedroko Ondartxo

- **Erref:** DON-070/064
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 01:36:34. **Bukatu:** 01:38:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Pasai San Pedron bizi zirela 'Liraina' izeneko batela zuten, baina ez ziren urrutira joaten arrantzan. Ondartxo izeneko toki polit bat zegoen han eta askotan bainatzen ziren bertan.</p>

26. Arraina mojentzat

- **Erref:** DON-070/065
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 01:38:08. **Bukatu:** 01:39:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Pasai San Pedron bizi zirela, behin arrain asko arrantzatu zituzten eta ikastetxeko moja mexikarrei eman zizkieten.

27. San Inaziotako farolak

- **Erref:** DON-070/069
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 01:41:43. **Bukatu:** 01:42:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Pasai San Pedron bizi zirela, San Inazio egunez ontzi batek farolak banatzen zituen etxeetako balkoietan eta bateletan jartzeko. Oso ohitura polita zela dio Begoñak.

28. San Pedroko izotz-lantegia

- **Erref:** DON-070/070
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:42:32. **Bukatu:** 01:43:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Pasai San Pedron bere aitak izotza ("jela) egiteko lantegian egiten zuen lan. Pasabide batetik zehar garraiatzen zuten izotza baporeraino. Balkoian jarrita ez ziren aspertzen hangoak ikusten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-04-07

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com